

MONDRAGON CITY CHALLENGE 1. edizioa amaitzear dago

Antolatzaileak dira El Diario Vasco, Arrasateko Udala, Eusko Jaurlaritza, Kooperatiben Goren Kontseilua, Konfekoop, MONDRAGON Korporazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mondragon Unibertsitatea, eta Arrasaten aurkeztu zen proiektua, otsailaren 17an. Helburua da enpresa portaera kooperatiboa sustatzea eta gazteak eredu kooperatiboaren balioetara hurbiltzea, antzeko eredu batean oinarritutako enpresa proiektuen garapenaren bitartez. Batxilergoko, prestakuntza zikloetako eta unibertsitateko ikasleei zuzendutako ekimena da, eta sailkatutako taldeek bakarrik izango dute proiektu kooperatibo propioa garatzeko aukera.

Antolakuntzak gure Elkarteari, ASEkoopekin batera, ematen zion rola da aurkeztutako proiektuak tutorizatzea, gure enpresa esperientzia eta gure balio kooperatiboak eskainiz.

Bederatzi hilabeteko lana izan da, eta hauek izan dira mugarri adierazgarrienak:

- Martxoan, antolakuntzako epaimahai teknikoak aurkeztutako 84 proiektuetatik 20 hautatu zituen, eta ASEkoopei eta gure Elkarteari proiektuen tutoretza eskatu zien, erakunde bakoitzari 10 proiektu esleituz.
- Apirilean, ALEk 10 tutore izendatu zituen 10 talderekin aritzeko, eta hautatutako proiektuei zuzendutako prestakuntza eman zen. Une horretatik aurrera, 20 taldeak hasitako ideia garatzen hasi ziren, tartean ziren tutoreen laguntzarekin.
- Ekainaren 21ean amaitu zen proiektuak aurkezteko epea, eta, azkenean, 18 talde sartu ziren epearen barruan.
- Irailaren 23an, lehiaketako epaimahaiak ebaluatutako 18 proiektuen artean 6 finalista aukeratu zituen. Azpimarratzekoa da Elkartek tutorizatzen dituen proiektuetatik hiru aukeratu direla.

Azken pausoak:

- Datorren azaroaren 16an, Kulturaten, Arrasaten, ongietorria egingo zaie hautatutako 18 taldeei, eta gure Elkarteko tutoreak ere haiekin izango dira, elkar ezagutzeko. Izan ere, kontuan izan behar da tutoretza bide telematikoz egin zela.
- Azaroaren 15etik 18ra bitartean, sailkatutako 18 taldeek aukera izango dute enpresa kooperatibo baten jardura zuzenean ezagutzeko, eta bazkideen arteko berdintasun eta ekitate printzipioaren arabera kudeaketa demokratikoaren berezitasunetatik ikasteko.

- Azaroaren 19an Arrasateko Amaia Antzoki-Zineman 6 finalistek euren proposamenak aurkezteko aukera izango dute. Talde bakoitzaren defentsa amaitzean, epaimahai profesionalak dagokion proiektuari lotutako galdera batzuk egingo ditu. Taldearen erantzuteko gaitasuna proiektu finalista bakoitzaren ebaluazioaren parte izango da. Ekitaldia amaitzeko, irabazleak aukeratuko dira eta, horrenbestez, Mondragon City Challengeren lehen edizioari amaiera emango zaio.

Azken ekitaldira etortzera animatzen zaituztegu, eta nahi duenak azaroaren 11 baino lehen eman beharko ditu izen-abizenak amarco@diariovasco.com helbidean. Ez dago leku mugarik.